

1. Ariketa. Lemoa

A. Testua: Behiak larrean

INK.: Bedar asko ebaten san len?

LEK.: Lenau bedarra oiñ baño gitxiau, se oiñ dau bedarra askos geau, se oiñ esta labretan lurrek lengo moduen. Lenau iten sian artoa ta babea ta garie ta ereite san les asko, esan, e, sertzean, ba, bedar asko egoten, se sereta, basora ta botate gindusen. Lenau esan egoten oingo moduen piñudirik eta onan. Da goxean goxetik, e, batu beyek eta botate gindusen basora.

INK.: Eta se iten san, bakotxak bereak yamon edo?

LEK.: Es, basora botaten gindusen da egoten sian igual bakarrik eta egon esik bakarrik kargu artu bear isite yakien ero, etorri ero ekarri ero galdu ero iñ ixite san kontue, baye batzuk igual akostunbraute egoten sian eurek, ta aik egoten sianak ba bakarrik itxite, ta ostantxean yagon.

INK.: Eta ino is egin de auso gustiko beiek persona batek yamotea edo?

LEK.: Es, olangorik es, bakotxe... Bai, inos e basora yoan da ikusi te inos ba, koño, urlin beik dosak eta kargu artute ba ikusis kero txarto, ba apur bet ba artestu ero olan bai, baya ostantxean bakotxak bereak, bakotxak berea betik basora. Ta ostantxean oneik bat e... juntau eskero burruke ta ite eurien. Bata besteas adarka ta orreik e deseusena, ba, euren laguneri es baya.

INK.: Eta noren basotara botaten ziren?

LEK.: Ba, por ejemplo, emen, e, ba basoak libre oten eskero, ba eseuen iñok e yamonik iten lenau. Esanales egoten, e, kalterik eta... be oin gero, oin, e, sartzean isin dan les, piñue ta onek, ba, piñu artetan da ganaduek eta, bakixu, kalte iten euren da, ba oiñ esta, lenaukorik estau. Ta oin piñupeatan da be estau. Da lenau basoak egoten sian libre, ideak eta ardiek eta basoan. Ardi errebañuek basoan idepeatan da, basoan.

B. Galderak

1. Adieraz ezazu, esaldi bakar bat erabiliz, zein den testuaren gaia (1 puntu):

.....

2. Esan esazu esaldi hauetako bakoitza EGIA ala GEZURRA den (1 puntu):

a. Orain lehen baino belar gehiago dago.

b. Normalean pertsona batek guztien behiak zaintzen zituen.

3. Aurkitu itzazu testuan mendebaldeko euskararen lau ezaugarri eta aipa itzazu testuko adibideak (4 puntu):

a.

b.

c.

d.

4. Berridatz ezazu testua euskara batuan (4 puntu):